

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

*Akats zuzenketa*

Akats bat antzeman da 2020ko apirilaren 21eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (73 zk.), Covid-19 birusak kaltebera ekonomikoan utzi dituen herritarren errenta nahiz mailegu gastuei erantzuteko diru-laguntza deialdia iragartzerakoan. Horregatik, honen bidez dagokion zuzenketa egiten da:

Euskarazko zutabearen.

— *Hau esaten du:*

«9. artikulua. *Bateraezintasuna.*

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera subsidiarioa dute. Hau da, eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako Gizarte Larrialdietarako laguntza, Udal Laguntza, Gaztelagun programa eta antzekoak jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta.

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera subsidiarioa dute. Hau da, eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako Gizarte Larrialdietarako laguntza edota Udal Laguntza jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta».

— *Esan behar du:*

«9. artikulua. *Bateraezintasuna.*

Deialdi honetan araututako laguntzak bateraezinak dira etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, etxebizitzako prestazio osagarriarekin eta beste edozein administrazio publikok edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako eman ditzakeenarekin. Ondorio horietarako, eskatzaileak adierazi beharko du ez duela egin deialdi honetan araututako laguntzen pareko eskaerarik.

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera subsidiarioa dute. Hau da, eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako Gizarte Larrialdietarako laguntza, Udal Laguntza, Gaztelagun programa eta antzekoak jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta».

Azpeitia, 2020ko apirilaren 21a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (1873)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Corrección de errores*

Advertido error en el anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 73, de 21 de abril de 2020, de publicación de la convocatoria para la concesión de las subvenciones del programa de ayudas para dar respuesta al impacto económico provocado por el virus Covid-19 en el ámbito de la vivienda, se realiza la correspondiente corrección:

En la columna en español.

— *Donde dice:*

«Artículo 9. *Incompatibilidad.*

Las ayudas recogidas en esta convocatoria tiene carácter subsidiario. Es decir, si los solicitantes cumplen las condiciones señaladas en las Ayudas de Emergencia social, ayudas municipales, programa Gaztelagun o similares en relación al objeto de estas ayudas, las solicitudes se redireccionarán a las mismas. Por lo tanto, estas ayudas van dirigidas a cubrir las solicitudes que no se encuadran en las ayudas anteriormente señaladas, siempre y cuando los solicitantes cumplan los requisitos exigidos para la concesión de las mismas.

Las ayudas contempladas en la presente convocatoria tienen carácter subsidiario. Es decir, en el caso de que las personas solicitantes cumplan los requisitos para acceder a las Ayudas de Emergencia Social y/o Ayuda Municipal para la finalidad para la que esta convocatoria se propone subvencionar, se destinarán a las citadas ayudas. Y, por tanto, estas ayudas están dirigidas a solicitantes no amparados por otras ayudas y que cumplan los requisitos recogidos en la convocatoria».

— *Debe decir:*

«Artículo 9. *Incompatibilidad.*

Las ayudas reguladas en la presente convocatoria son incompatibles con la prestación económica de vivienda, con la prestación complementaria de vivienda y con aquellas otras que con el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra Administración Pública o entidad pública o privada. A estos efectos, la persona solicitante deberá manifestar que no ha realizado ninguna solicitud de ayuda equivalente a las reguladas en la presente convocatoria.

Las ayudas recogidas en esta convocatoria tiene carácter subsidiario. Es decir, si los solicitantes cumplen las condiciones señaladas en las Ayudas de Emergencia social, ayudas municipales, programa Gaztelagun o similares en relación al objeto de estas ayudas, las solicitudes se redireccionarán a las mismas. Por lo tanto, estas ayudas van dirigidas a cubrir las solicitudes que no se encuadran en las ayudas anteriormente señaladas, siempre y cuando los solicitantes cumplan los requisitos exigidos para la concesión de las mismas».

Azpeitia, a 21 de abril de 2020.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (1873)